

2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 94 KULTURARTEKO
BIZIKIKETZARAKO POLITIKA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 94 POLÍTICA DE CONVIVENCIA
INTERCULTURAL

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

2018ko ekitaldiko aurrekontu luzatuarekin 2019ko ekitaldian zehar garatu beharreko aurrekontu programa honen helburua kulturarteko bizikidetzaren sustatzea, topaketa espazioak bultzatzea eta xenofobia eta arrazakeria desagerraraztea zegoen, genero ikuspegia zeharkakotasunez txertatuz.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

2019ko ekitaldian jarduketara hauek egin dira elkarbizitzaren eta kulturartekotasunaren inguruan:

1.- “Arabako Foru Aldundiaren sentsibilizazio eta kulturarteko bizikidetzari buruzko politiken esparru agiria” taxutzea, jarduteko esparrua ezartzeko helburuz, betiere aukera berdintasunarekiko konpromisoari eta lurraldeko gizarte kohesioari eutsita eta pertsona nahiz kultura guztien aniztasuna errespetatuta.

Esparru agiria egin aurretik, 2019an zehar, Arabako migrazio fenomenoari buruzko azterlan diagnostikoa egin da, funtsezko tresna baita agiri horren oinarriak finkatzeko.

Bertan, honako eduki hauek jasotzen dira: errolda datuak, egitura datuak, bertako biztanleek Arabako immigrazioari buruz dituzten pertzepzioen eta iritzien analisia eta Arabako atzerriar jatorriko pertsonen diskurtsoen azterketa, ondorio orokorrez gain.

Era berean, 2020rako esparru agiria egiteko plana taxutu da, azterlan hori ALHn sozializatuz, politika, teknika, elkarte eta herritar mailako proposamenak erkatu eta jasoz, eta zerbitzuaren barne lana eginez.

I. MEMORIA

El objetivo de este Programa Presupuestario a desarrollar a lo largo del ejercicio 2019 con presupuesto prorrogado del ejercicio 2018 comprendía la promoción de la convivencia intercultural, el fomento de espacios de encuentro, la prevención y eliminación de la xenofobia y el racismo, incorporando transversalmente la perspectiva de género.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Durante el ejercicio 2019 las actuaciones realizadas en materia de convivencia e interculturalidad han sido las siguientes:

1.- Elaborar un “Documento marco de políticas de sensibilización y convivencia intercultural de la Diputación Foral de Álava”, que tenga como objetivo establecer un marco de actuación, que suponga un compromiso responsable con la igualdad de oportunidades y la cohesión social del territorio respetando la diversidad de todas las personas y culturas.

De forma previa a la elaboración del Documento marco, a lo largo de 2019 se ha llevado a cabo el Estudio diagnóstico sobre el fenómeno migratorio en Álava, puesto que supone una herramienta esencial para asentar las bases del citado documento.

En el mismo se recogen los siguientes contenidos: datos padronales, datos estructurales, análisis de las percepciones y opiniones de la población autóctona ante la inmigración en Álava y análisis de los discursos de las personas de origen extranjero en Álava, además de unas conclusiones generales.

Igualmente se ha trazado el plan de elaboración del Documento Marco para 2020 con la socialización de este Estudio en el THA, el contraste y recogida de propuestas a nivel político, técnico, asociativo y ciudadano, y el correspondiente trabajo interno del Servicio.

2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 94 KULTURARTEKO
BIZIKIKETZARAKO POLITIKA

2- Sentsibilizazio ekintzak bultzatzea, lurraldeko kulturen arteko bizikidetzeta, gizarte kohesioa eta gizarteratzea sustatzeko, generoaren ikuspegitik abiatuta.

Bai dirulaguntzak emateko deialdien bidez –ALHko udal, kuadrilla eta irabazteko xederik gabeko erakundeei lagundutako proiektuekin–, bai landa eremuan bizikidetzeta sustatzeko eta zurrumurruei aurre egiteko estrategiaren bidez, kulturen arteko sentsibilizaziorako ekintza ugari sustatu eta garatu dira, betiere genero ikuspegia txertatuta.

Adierazi behar da 2019ko maiatzean, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak, Arabako zurrumurruen aurkako strategiaren esparruan, "Zurrumurrak/buloak Interneten eta sare sozialetan" izeneko mintegia antolatu genuela Maldita.es plataforma ezagunaren eskutik, Guardia, Santikurutze Kanpezu, Amurrio, Agurain eta Gasteizko udalerrietan.

Mintegi horietan erakutsi zen nola funtzionatzen duen edukien hedapenak sare sozialetan, gaitasun kritikoa garatu zen jasotzen dugun informazioaren aurrean, eta tresnak eman ziren egiazko informazioaren inguruko albiste faltsuak, gezurrak eta zurrumurrak identifikatu eta bereizteko; hori guztia, batez ere, migrazioen esparruan.

Azpimarratzekoa da landa eremuan 80 pertsona baino gehiago izan zirela, politika, teknika eta herritar arloetatik etorritakoak, eta, bereziki, lurraldeko zurrumurruen aurkako eragile taldeak.

3.- Udal, kuadrilla eta irabazteko asmorik gabeko erakundeen ekimenak babestea, Arabako lurraldeko udalerrietan sentsibilizazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren bidean aurrera egiteko, genero ikuspegia zeharka txertatuta:

Arabako Lurralde Historikoan kulturartekotasun bizikidetzeta eta sentsibilizaziorako jarduera eta/edo programak garatzeko Arabako udal eta kuadrillei eta Trebiñuko konderriari zuzendutako dirulaguntzen deialdiaren bitartez 2019an guztira lurraldeko toki erakundeen 9 proiektu aurkeztu ziren (8 udal eta kuadrilla bat); denek lortu dute dirulaguntza, guztira

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 94 POLÍTICA DE CONVIVENCIA
INTERCULTURAL

2.- Promover acciones de sensibilización para fomentar la convivencia intercultural, la cohesión e integración social del territorio desde la perspectiva de género.

Tanto a través de las convocatorias de subvenciones con los proyectos apoyados a ayuntamientos, cuadrillas y entidades sin ánimo de lucro del THA, como de la propia estrategia antirrumor para la promoción de la convivencia en la zona rural, se han promovido y desarrollado numerosas acciones de sensibilización intercultural con perspectiva de género.

Señalar que, en el mes de mayo de 2019, Diputación Foral de Álava y Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, organizamos en el marco de la Estrategia Antirrumor alavesa, un seminario sobre "Rumores/bulos en Internet y redes sociales" a cargo de la conocida plataforma Maldita.es en los municipios de Laguardia, Santa Cruz de Campezo, Amurrio, Agurain y Vitoria-Gasteiz.

En estos seminarios se mostró cómo funciona la difusión de contenidos en redes sociales, se desarrolló la capacidad crítica frente a la información que recibimos y se facilitaron herramientas para poder identificar y diferenciar las noticias falsas, bulos y rumores de lo que es información veraz; todo ello principalmente contextualizado en el ámbito de las migraciones.

Destacar que en la zona rural asistieron más de 80 personas provenientes de los ámbitos políticos, técnicos y ciudadanos, con especial presencia de los grupos de agentes antirrumor del territorio.

3.- Apoyar iniciativas de municipios, cuadrillas y entidades sin ánimo de lucro para avanzar en la sensibilización y convivencia intercultural en los municipios del territorio de Álava incorporando transversalmente la perspectiva de género:

A través de la convocatoria de subvenciones dirigidas a Ayuntamientos y Cuadrillas de Álava y Condado de Treviño para el desarrollo de programas y/o actividades destinadas a la sensibilización y a la convivencia intercultural en el Territorio Histórico de Álava se presentaron en 2019 un total de 9 proyectos de entidades locales del Territorio (8 de ayuntamientos y 1 de cuadrilla), subvencionándose

2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 94 KULTURARTEKO
BIZIKIKETZARAKO POLITIKA

65.000,00 euro.

Kasu gehienetan kulturartekotasun bizikidetzaren planak edo ekintzak izan dira, zurrumurruren aurkako estrategiak, etab.; horrez gain, ekimen puntualak ere garatu dira, kultura arteko ezagutza, sentsibilizazioa eta hurbilketa lortzera bideratutakoak, eta guztietan txertatu da genero ikuspegia.

Irabazi asmorik gabeko entitate eta elkarteentzako kulturen arteko bizikidetzarako eta sentsibilizaziorako programak edota jarduerak garatzeko dirulaguntzen deialdian, 2019an zehar guztira 21 proiektu aurkeztu ziren. Horietatik 20k jaso zuten dirulaguntza, eta 1ek ez zuen dirulaguntzarik jaso, ez zuelako eskatutako dokumentazioa epe barruan aurkeztu. Kopurua, guztira, 133.498,69 eurokoa izan zen.

Proiektuak anitzak izan dira; proiektu baten helburua udalerrian esku hartze komunitarioko prozesu estrategiko bat tinkotzea izan da, epe ertaineko iraupenarekin; horregatik, 10.000 euroko dirulaguntza lortu du, gainerakoak ez bezala, besteek gehienez 8.000 euroko laguntzak jaso baitituzte. Gainerakoen kasuan kulturarteko sentsibilizazio programak, eskola mailako tailerrak, ikus-entzunezko sorkuntzak eta topaketa espazioak sortzera bideratutako jarduerak izan dira, ALHn gizarte kohesioa eta kulturarteko bizikidetzaren sustatzeko.

4.- Lurraldeko udalerrietan kulturen arteko bizikidetzaren garapena sustatzea, honako proiektu honi jarraipena emanez: “Arabako bizilagunak: zurrumurru xenofoborik ez duen eta genero berdintasunerako eragin positiboa duen kulturen arteko bizikidetzaren alde”

Zurrumurruren aurkako estrategia 2016an jarri zen martxan Arabako lurralde historikoan, eta 2017an eta 2018an finkatu zen; 2019an berrikusi egin zen eta bultzatzea eta zenbait udalerritan jarraipena ematea proposatu zen, hain zuzen ere Laudion, Amurrioren eta Artziniegan (Aiarako Kuadrillan), Kanpezun eta Maeztun (Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrilla), Agurainen, Asparrenan eta Dulantzin (Arabako Lautadako Kuadrilla) eta, berri modura, Ribavellosan (Añanako Kuadrilla), azken

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 94 POLÍTICA DE CONVIVENCIA
INTERCULTURAL

todos ellos por un importe total de 65.000,00 €

En su mayoría se ha tratado de acciones o planes de convivencia intercultural, estrategias antirrumor, etc.; si bien también se han desarrollado iniciativas puntuales dirigidas al acercamiento, conocimiento y sensibilización intercultural, incorporándose en la totalidad de los mismos la perspectiva de género.

A través de la convocatoria de subvenciones dirigidas a asociaciones y entidades sin ánimo de lucro para el desarrollo de programas y/o actividades destinadas a la sensibilización y a la convivencia intercultural se presentaron durante el 2019 un total de 21 proyectos de los cuales se subvencionaron 20, y se denegó 1 por no presentar en plazo la documentación requerida. El importe total fue de 133.498,69€

Los proyectos han sido diversos, uno de los cuales tiene como fin la consolidación de un proceso estratégico de intervención comunitaria en el municipio y con una durabilidad a medio plazo, razón por la cuál ha obtenido una subvención de 10.000 € a diferencia de los restantes cuyo importe máximo ha sido de 8.000 € y se han centrado en la realización de programas de sensibilización intercultural, talleres en el ámbito escolar, creaciones audiovisuales, y actividades encaminadas a la generación de espacios de encuentro que faciliten la cohesión social y promuevan la convivencia intercultural en el THA.

4.-Promover entre los municipios del Territorio el desarrollo de la convivencia intercultural a través de la continuación del proyecto “Arabako bizilagunak: por una convivencia entre culturas y sin rumores xenófobos y con efecto positivo en la igualdad de género”

Tras la puesta en marcha en 2016 de la Estrategia Antirrumor en el Territorio Histórico de Álava, y consolidarse en 2017 y 2018, en 2019 se realizó una revisión de la misma, proponiéndose su impulso y continuación en los municipios de Llodio, Amurrio y Artziniega de la Cuadrilla de Ayala, Campezo y Maeztu de la Cuadrilla de Campezo-Montaña Alavesa, Agurain/Salvatierra, Asparrena y Alegría-Dulantzi de la Cuadrilla de Llanada Alavesa, y como novedad Ribavellosa de la Cuadrilla de Añana

2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 94 KULTURARTEKO
BIZIKIKETZARAKO POLITIKA

horretan ezin izan baitzen estrategia ezarri zerbitzu barruko arrazoiak zirela eta.

Esparru horretan, zurrumurruen aurkako eragile berriak identifikatu eta erakarri dira, existitzen ziren taldeak handitu eta indartu egin dira, talde horiek zurrumurruen aurkako toki ekimenak gara ditzaten prestakuntza eta laguntza eman da (udal estrategiak diseinatu eta ezartzea), zurrumurruen aurkako ekintzak eta/edo egitura propioak garatzen dituzten udal, kuadrilla eta toki elkarteei laguntza eta aholkularitza eman zaie; azaroaren 30ean Bizilagunak ekimena antolatzea nabarmendu behar da, lurraldean daukagun kultura aniztasuna ikusarazi eta ospatzeko mugarri bezala.

5.- Kulturarteko bizikidetzaz zeharlerro gisa txertatzea Arabako lurralde historikoko “Laia Eskola” izeneko jabekuntza eskolan.

Horri dagokionez, esan beharra dago arloko dirulaguntzen bi deialdietan honako testu honi eusten zaiola aurreko ekitaldietan bezalaxe, ekintza lerro hori ikusarazi eta berari buruz informatzeko:

“Jende guztiak parte hartzekoak diren jarduerak diruz lagunduak, Berdintasun, Lankidetzaz eta Kulturartekotasun Zerbitzuak intereseko irizten badie, LAIA Eskolaren urteko programazioaren parte izango dira (LAIA eskola, Arabako Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskola).”

Horrez gain, kulturartekotasun eta berdintasun atalen arteko lan komuneko ildoak tinkotu da LAIAtik eta Zurrumurruen aurkako Estrategiatik, Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrillan estereotipo, aurreiritzi eta emakumeekin zerikusia duen prozesua garatuz eta jarraipena eginez.

Bidenabar, LAIA Eskolaren programazioan bertan, halaber, kulturartekotasunaren eta generoaren gaiak landu dira, eta gai horiei buruzko hainbat tailer eta saio jaso dira.

6.- Modu aktiboan parte hartzea erakundearteko foroetan; trukerako eta koordinazioarako egituretan parte hartzea:

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 94 POLÍTICA DE CONVIVENCIA
INTERCULTURAL

(último municipio este en el que no se pudo implementar la estrategia por motivos internos vinculados al Servicio).

En este marco, se realizó la identificación y captación de nuevas y nuevos agentes antirrumor, la ampliación y fortalecimiento de los grupos existentes, la formación y acompañamiento para el desarrollo de iniciativas locales antirrumor por parte de estos grupos (diseño e implementación de estrategias municipales), el apoyo y asesoramiento a los ayuntamientos, cuadrillas y asociaciones locales que desarrollan sus propias estructuras y/o acciones antirrumor, destacando la organización del evento Bizilagunak el 30 de noviembre como hito para la visibilización y celebración de la diversidad cultural existente en el territorio.

5.- Incluir transversalmente la convivencia intercultural en la escuela de empoderamiento del territorio histórico de Alava “Laia Eskola”

A este respecto, señalar que en las dos convocatorias de subvenciones del área se mantiene como en ejercicios anteriores y a fin de visibilizar e informar sobre esta línea de acción el siguiente texto:

“Las actividades subvencionadas abiertas al público en general que el Servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad considere de interés, formarán parte de la programación anual de LAIA Eskola – Escuela para la Igualdad y el Empoderamiento de las mujeres en Álava.”

Además, se ha consolidado la línea de trabajo común entre las áreas de igualdad e interculturalidad, desde LAIA y la Estrategia Antirrumor, con el desarrollo y continuidad del proceso relacionado con estereotipos, prejuicios y mujeres en la Cuadrilla de Campezo-Montaña Alavesa.

Igualmente, desde la misma programación de LAIA Eskola se ha trabajado la cuestión de la interculturalidad y el género, incluyéndose en la misma diferentes talleres y sesiones con esta temática.

6.- Participación activa en foros interinstitucionales, participación en estructuras de intercambio y coordinación:

2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 94 KULTURARTEKO
BIZIKIKETZARAKO POLITIKA

Parte hartzeari, sentsibilizazioari eta kulturari buruzko lan batzordearen 4 bileratan parte hartu dugu, guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroaren barruan.

Era berean, Eusko Jaurlaritza buru duen foro horren osoko bilkuran parte hartu da.

Gainera, EAEko Immigrazio eta kulturartekotasuneko teknikarien sarearen jarduera sustatu da, eta Euskadiko beste teknikari batzuekin programak eta ekintzak trukatzeko eta proposatzeko 3 bileratan parte hartu da.

7.- Hirugarren sektorearekin hitz egiteko eta elkarlanean jarduteko guneak eratzen jarraitzea, etorkinen gizarte errealitatea ezagutzeagatik eta hartatik hurbil egoteagatik aliantza handia osatzen baitute.

2016. urteaz geroztik, hau da, ZAS! Sarea sortu eta Arabako Foru Aldundiak sare horrekin bat egin zuenetik, ibilbide garrantzitsua egin dute bai antolakundeek bai erakunde publikoek immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloko ezagutzan, ekintzan eta prebentzioan.

2018an, ahalegin handia egin zen, eta horren emaitza izan zen ZAS! Sareak nortasun juridikoa izatea jada (irabazteko asmorik gabeko erakunde gisa). Baina oraindik bazen ezinbesteko lan bat egiteko: nortzuk ginen eta zer egin nahi genuen.

Horregatik, 2019ko lehen seihilekoan, sare hori osatzen dugun erakunde guztiek hausnarketa prozesu bat abiarazi genuen, ZAS! estrategiaren mugak eta irismenak definitzeko; 4 lan saio egin ziren eta sortutako dokumentazioa erkatu eta ekarri zen.

Era berean, ZASeko plenoko eta batzordeko ohiko bileretan parte hartzen jarraitu dugu; egitura bultzatu eta berriz diseinatzeko proposatutako zenbait agiri aurkeztu dira.

Oro har, ondo lortu da proposatutako helburuak betetzea, memoria honetan zehar azaldu den bezala.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 94 POLÍTICA DE CONVIVENCIA
INTERCULTURAL

Se ha tomado parte en un total de 4 reuniones de la Comisión de trabajo de participación, sensibilización y cultura dentro del Foro para la Integración y Participación Social de las ciudadanas y ciudadanos inmigrantes en el País Vasco.

Del mismo modo se ha participado en el Pleno de dicho Foro liderado por Gobierno Vasco.

Además se ha impulsado la actividad de la Red de Personal Técnico de Inmigración e Interculturalidad de la CAV, y participado en 3 reuniones de intercambio y propuesta de programas y acciones con otras técnicas y técnicos de Euskadi.

7.- Continuar tejiendo los espacios de diálogo y colaboración con el tercer sector, que por su conocimiento y cercanía a la realidad social de las personas inmigrantes constituyen una gran alianza.

Desde el 2016, momento en que nace la Red ZAS! y Diputación Foral de Álava se adhiere a la misma, hay ya un recorrido importante que se ha llevado a cabo tanto por las organizaciones como por las instituciones públicas en el conocimiento, acción y prevención del ámbito de la inmigración y la interculturalidad.

En 2018 se hizo un importante esfuerzo que dio como fruto el que la Red ZAS! cuente ya con personalidad jurídica (en la forma de entidad sin ánimo de lucro). Pero quedaba pendiente un necesario trabajo acerca de quiénes eramos y qué queríamos hacer.

Por ello a lo largo del primer semestre de 2019 se puso en marcha un proceso de reflexión por parte de todas las entidades que conformamos esta Red para definir los límites y alcances de la estrategia de ZAS!, participando en 4 sesiones de trabajo y el contraste y aporte a diferente documentación generada.

Asimismo, se ha continuado asistiendo a las reuniones ordinarias de plenario y de comisión de ZAS, y aportando diferentes documentos propuestas de re-diseño e impulso de la estructura.

En conjunto, se ha logrado de forma satisfactoria el cumplimiento de los objetivos propuestos tal como

**2019RA LUZATUTAKO 2018KO
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

Sala: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 94 KULTURARTEKO
BIZIKIKETZARAKO POLITIKA

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018
PRORROGADO PARA 2019**

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 94 POLÍTICA DE CONVIVENCIA
INTERCULTURAL

se ha ido describiendo a lo largo de esta memoria.